



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko apirilaren 12a

34. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Nafarroako kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzekoa, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateei ingurumen eta hirigintza arloetan aholku emateko bulego teknikoak abian jar ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza ereduaren arteko bizikidetasun-irizpideei jarraikiz egin dezan hezkuntza sistemaren plangintza. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gure herrian bizi dugun indarkeriari eta gatazkari elkarrizketaren bidezko konponbidea emateko lan egingen duela, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hori bera egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arrisku sismikoari buruzko beste azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamenturako informatikarako laguntza teknikoaren zerbitzua adjudikatzeko erabakia (6. or.).

—Nafarroako Foru Komunitatean inkesta orokorra egiteko laguntza teknikoaren zerbitzua adjudikatzeko erabakia (6. or.).

—Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko. Behin-behineko izendapena (7. or.).

—Nafarroako Parlamentuak izendatu behar duen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide bat izendatzea. (7. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzekoa, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko apirilaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Legea, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin, onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Legea, Nafarroako kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzekoa, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legearen 64. artikuluan ezartzen denez, lan elkartuko kooperatibak dira pertsona fisikoek nahiz juridikoek osatutakoak, eta haien lanaren bitartez ondasun edo zerbitzuen produkzioan jarduera ekonomikoa edo lanbidezkoa egiten dutenak, horrela enplegu finkoa eskainiz. Bestalde, Kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen 7. artikuluan aurreikusten denez, lan elkartuko kooperatibek babes berezia izanen dute baldintza jakin batzuk betez gero; horien artean, oinarritzak da ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea hirugarrenentzat.

Gaur egun indarrean dagoen arauak lan elkartuko kooperatibei babes ematen die, hirugarrenentzat ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea xede badute; hala ere, ez ditu formula kooperatibistak garatzen, ezta bereizten ere, kooperatibaren xede

diren zerbitzu edo jardueren arabera, eta, jakina, zerbitzu horien artean oso esanguratsuak dira irabazi asmorik gabe eskaintzen diren gizarte zerbitzuak.

Hori dela eta, gaur egungo autonomia erkidegoetako arau askotan gizarte ekimeneko kooperatibak jasotzen dira eta haien xedea zehazten; hain zuzen, haurren eta gazteen babesarekin zerikusia duten zerbitzuak ematea, zaharrei laguntza ematea, hezkuntza berezia, mendekotasuna duten pertsonen laguntza ematea eta abar.

Kooperatiba mota hori eratzea ahalbidetu den autonomia erkidegoetan, hainbat esparru bete dituzte, hala nola egoera ahulean dauden kolektiboentzako enplegurako eta laneratzeko prestakuntza, zaharrei eta haurrei laguntza emateko zerbitzuak, enplegu iturri berriak, laneko segurtasuna eta higiena, ingurumena eta aisialdia.

Autonomia erkidegoetako araubide guztien ezaugarri nagusia, aukeratzen den forma alde batera utzita, irabazi asmorik gabeko kooperatibak izatea da. Halaber, bereizgarria da, kooperatiben berezko izaeraren ondorioz, irabazi horiek banatzeko eta inbertitzeko modua; izan ere, hiru arlo hartzen baitira kontuan: alde batetik, ekonomikoa, irabaziak gizartearen garapenean eta jardueraren hobekuntzan inbertitzeko; bestetik, sozietateena, lan elkartuaren bidez pertsonak sustatzeko eta, jakina, ikuspuntu soziala, kohesioa eta gizarte-justizia sustatzeko.

Horrenbestez, figura horrek abantailak ditu elkartearen aldean; izan ere, kooperatibak asetzen du erakundeari enpresa-egitura taxutuagoa emateko beharrezana. Horretaz gain, horren azpian badira printzipio batzuk, eta printzipio horiek gauzatzeko bazkide guztiek parte hartzen dute helburu sozialak lortu ahal izateko eta kooperatibaren

kudeaketa errazteko erabakiak hartzerakoan, kasuan kasuko organoen bidez.

Hori dela eta, kooperatiba mota horren araubideak, arestian azaldutakoekin koherentea izateko, eskatzen du une bakoitzean dagoen edo gizarte zerbitzuei buruzko legediak ezartzen duen erregistroan inskribatzeko aukera ematea eta zerga-araubidea irabazi asmorik gabeko fundazioek, elkarteek eta gainerako entitateek dutenarekin parekatzea.

Hori guztia egin daiteke Nafarroako kooperatibei buruzko uztailaren 2ko Foru Legean aldaketa soil bat eginda, artikulua berri bat gehituz, 74. bis artikulua, alegia, zeinak jasotzen baititu kooperatiba mota horren kontzeptua eta ezaugarriak eta erregistroko inskripzioaren gaia. Horrelako kooperatibei eman beharreko zerga-trataerari dagokionez, azken xedapenetako lehenean ezartzen da Nafarroako Gobernuak kasuko foru lege proiektua igortzea.

Artikulu bakarra. Nafarroako kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legeari beste artikulua bat gehituko zaio:

74. bis artikulua. Gizarte ekimeneko kooperatibak.

1. Gizarte ekimeneko kooperatibatzat hartuko dira, edozein motatakoak izanda ere, ondoko xede sozialak dituzten kooperatibak: haurren eta gazteen babesarekin zerikusia duten laguntza arloko gizarte zerbitzuak ematea, zaharrei laguntza ematea, hezkuntza berezia, minusbaliotasuna duten pertsonen laguntza ematea, gutxiengo etnikoei, errefuxiatuei, babestu politikoei, partekatu gabeko familia zamak dituzten pertsonen, preso ohiei, alkoholikoei eta toxikomanoei laguntza ematea, gizarteratzea eta delinkuentziari aurrea hartzea edota edozein motatako gizarte bazterkeria jasaten duten pertsonen laneratzea helburu duten jarduerak ekonomikoak garatzea, eta oro har, merkatuak asetzen ez dituen gizarte beharrei erantzutea.

2. Ondorio horietarako, irabazi asmorik gabeko kooperatibatzat hartuko dira ondoko baldintzak euren estatutuetan espresuki jaso eta betetzen dituztenak:

a) Izandako irabaziak ezin banatu izatea bazkideen artean.

b) Bazkideek kapital sozialari eginiko ekarpenek, bai nahitaezkoek bai borondatezkoek, ezin sorrarazi izatea diruaren interes legala baino interes handiagorik; hori, halere, ez da oztopo izanen ekarpen horiek gaurkotzeko.

c) Zuzendaritza kontseiluko karguak ordainsaririk jaso gabe betetzea; hori, halere, ez da oztopo izanen kontseilarien lanak sortutako gastuengatik bidezkoak diren ordain ekonomikoak jasotzeko.

d) Bazkide langileen edo, kasua bada, lan-bazkideen eta besteren konturako langileen ordainsariak ez izatea altuagoak sektore horretako besteren konturako langileei aplikagarri zaien hitzarmen kolektiboan jardueraren eta lortutako maila profesionalaren arabera ezarritako ordainsarien 100eko 150 baino.

3. Entitate eta erakunde publikoek bazkide gisa parte hartzen ahalko dute estatutuei jarraikiz ezarriko den moduan.

4. Gizarte ekimeneko kooperatibei, zein motatako kooperatiba izan, hari aplikagarri zaion araudia aplikatuko zaie.

5. 2. idatz-zatian azaldutako baldintzak betetzen dituzten kooperatibek, edozein motatakoak izanda ere, euren izenean agertuko dute "gizarte ekimena" aipamena, betiere Nafarroako Kooperatiben Erregistroak kalifikazio hori eman badie.

6. Artikulu honetan araututako kooperatibek, gizarte-zerbitzuen alorrean jarduteko asmoa baldin badute, une bakoitzean dagoen edo gizarte-zerbitzuen alorreko araudi sektorialak ezartzen duen erregistroan izena eman beharko dute.

Azken xedapenetan lehena. Gobernuak legegintza-ekimena igortzea.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorriko dio, 2006. urtea bukatu baino lehenago, kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat, gizarte ekimeneko kooperatiben zerga-araubidea ezarriko duena.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarrean sartzeari.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateei ingurumen eta hirigintza arloetan aholku emateko bulego teknikoak abian jar ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateei ingurumen eta hirigintza arloetan aholku emateko bulego teknikoak abian jar ditzan".

Legebiltzarrak 2006ko apirilaren 6an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko martxoaren 6ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza ereduen arteko bizikidetasun-irizpideei jarraikiz egin dezan hezkuntza sistemaren plangintza.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza ereduen arteko bizikidetasun-irizpideei jarraikiz egin dezan hezkuntza sistemaren plangintza".

Legebiltzarrak 2006ko apirilaren 6an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko martxoaren 6ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gure herrian bizi dugun indarkeriari eta gatazkari elkarrizketaren bidezko konponbidea emateko lan eginen duela, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hori bera egin dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gure herrian bizi dugun indarkeriari eta gatazkari elkarrizketaren bidezko konponbidea emateko lan eginen duela, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hori bera egin dezan".

Legebiltzarrak 2006ko apirilaren 6an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko martxoaren 13ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arrisku sismikoari buruzko beste azterlan bat egin dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da arrisku sismikoari buruzko beste azterlan bat egin dezan".

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko martxoaren 13ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Legebiltzarrak 2006ko apirilaren 6an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamenturako informatikarako laguntza teknikoaren zerbitzua adjudikatzeko erabakia.

Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 97.3 artikuluan xedatutakoa betez, iragartzen da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an hartutako Erabakiaren bidez, honako kontratu hau adjudikatu duela:

– Kontratuaren xedea: Nafarroako Parlamenturako informatikarako laguntza teknikoaren zerbitzua kontratatzea.

– Adjudikatzeko prozedura: prentsan iragarritako prozedura negoziatua.

– Prezioa: 31.113 euro, BEZa barne.

– Adjudikazio-hartzailea: Instrumentación y Componentes, SA.

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Foru Komunitatean inkesta orokorra egiteko laguntza teknikoaren zerbitzua adjudikatzeko erabakia.

Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 97.3 artikuluan xedatutakoa betez, iragartzen da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an hartutako Erabakiaren bidez, honako kontratu hau adjudikatu duela:

– Kontratuaren xedea: Nafarroako Foru Komunitatean buruzko inkesta orokorra egiteko laguntza teknikoaren zerbitzua kontratatzea.

– Adjudikatzeko prozedura: prentsan iragarritako prozedura negoziatua.

– Prezioa: 35.000 euro, BEZa barne.

– Adjudikazio-hartzailea: Centro de Investigaciones y Estudios Sociales (CIES) SL.

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Behin-behineko izendapena

Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia lehendakariak onetsi zuen 2005eko maiatzaren 25eko erabakiaz. Izendapen proposamena 2006ko martxoaren 22ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2006ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen; honakoa izan zen, hain zuzen: txanda irekian Xabier I. Marticorena Chapa jauna, txanda irekian, euskararekin, Miren Edurne Martincorena Machain andrea eta igoseran txandan M^a José Equiza Maquirriain andrea. Deialdiko 8. oinarrian xedatuari jarraikiz eta izendatutakoak 7.3 oinarrian ezarritako agiriak aurkeztu dituelarik, bidezkoa da proposatutako izangaiak behin-behineko izendatzea, deialdiko 9. oinarrian ezarritako praktika aldia has dezaten.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hona lehendakariaren

ERABAKIA:

Lehena. Xabier I. Marticorena Chapa jauna, Miren Edurne Martincorena Machain andrea eta M^a José Equiza Maquirriain andrea Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario izendatzea behin-behinekoz auditoretzako teknikari mailarekin.

Bigarrena. Interesdunek sei hilabeteko praktika aldia gaingitu behar dutela ezartzea, behin betiko funtzionario izendatu ahal izateko. Praktika aldi hori proposatutako izangaiak bere lanpostuaren jabetza behin-behinekoz hartzen dutenean hasiko da.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin eta Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta interesdunei jakinaraz dakienez agintzea, izendatuek deialdiko lanpostuak har ditzaten izendapen hau jakinarazten denetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2006ko apirilaren 5ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko kideetako bat izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko apirilaren 6an egindako bileran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak proposatuta, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide ondoko hau izendatzea:

– Juan Andrés Platero Alda jauna.

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikulua xedatutakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	